



# herriko plaza

## Talde eta Alderdi artean

JOXE AZURMENDI

Euskal Herrian talderik eta Alderdi-rik franko bada. Baina ikusi dugun masa mugimendua, geroz eta bortitzagoa, erre-  
litate independente eta beregainekoa da talde eta Alderdi horietatik.

Alegia, esku hartu dute Alderdiek masa mugimendu hortan. Bistan dago. Baina masa mugimendu hau ez da Alderdiek mugitu edo mugiarazi dutena soil. Bera da. Errealitate propioa du. Eta, beraz, masa politikarako eta masa erakunde-  
tarako posibilitate berriak nabari dira Euskal Herrian.

PNV ote da orain behar den eta orain posible den masa erakundea? ESB ote da, ala EHAS, ala ETA, ala... Horietako inor ez, bera bakarrik.

Nola edo hala, Alderdi guztiok dira masa erakunde gehiago erraz aipa daiteke.

Horixe bait da lehengo kalamitatea.

Apunta itzazu zerrenda batetan, inguruan dabilzkizun organizazio guziak, PNV-tik PTE-raino edo LC-raino, ez dakit. Seriona ere farrez hasiko da. Inola ere ez da arrazaoiez posible, horietako ba-  
koitzak beste guzietatik berezteko eta mugatzeko adina definizio izartea. Orduan ez da harritzekoa, jendeak, hainbeste siglaren artean, diferentziak non dauden ezin asmatzea. Harritzekoa, inork diferen-  
tzia guzi horiek egiten garbi jakitea litza-  
teke. "Diferentzietan espezialista" izan beharra dago ezer ulertzeko; eta masa mugimendu hain berdineko gizarte honetan hori...

Horietako inor ez da gaur behar genukeen masa erakundea. Eta ez diren neurrian, horiek denak —beren merito guzi-  
ak salbu— masa erakunde hortarako era-  
gozpen eta oztopo dira denak.

"Alderdi bakarraren" teoriatik, egia esateko, lurra zerutik bezain urruti gaude, Alderdi bakar urdina ala gorria izan dadi-  
la. Badakigu Alderdi bakarrak ez direla Alderdirik, alderdiak nahitaez bat baino gehiago izaten bait dira osoan. Baina oso-  
ak, osoa delakoxe, batasuna badu, alder-  
diak izanik ere. Eta Euskal Herriak, oso-  
ak, bere batasun formak eta batasun era-  
kundeak behar ditu, Alderdiak gorabehe-  
ra.

Aipatzen den fronte nazional hori, esate baterako, beharrezkoa da. Erreal-  
goa da, ordea, masa mugimenduan, era-  
kuden artean baino. Hortan herriaren a-  
tzetik dabilza erakunde politikoak, gidari  
behar luketenak...

Kristau-demokrazia tankerako edo inspiraziokoan batasuna behar da, orobat.

Hori errealitate ote den, ez dakit. Al-  
derdi horren batasuna beste Alderdiekin,  
behintzat, inolako errealiterik ez da eta  
hori denok dakigu.

Behar da, beste muturrean, eus-  
kaldun —nolabait esateko— "radikalen"  
batasuna ere. "Radikalena" esaten dut,  
komunistena edo marxistena ez esatearren.  
(Hitzen esanahiak oso nahastu zaizkigu!).  
Komunistak baino ezkerretaragokoak  
adierazi nahi ditut; ezker muturrekoak,  
abangardia radikalak. Izan ere, komunis-  
ta asko eta sozialista asko erdi aldera le-  
kuratu beharko genuke iadanik. Berez-  
kuntza klasikoa sozialistena eta komunis-  
tena izan da ezker mugimenguan. Baina  
ezkerraren banakuntza horrek sozialista  
eta komunistatan mugimendu proletario-  
aren hasieran ez zegoena, gero biziki in-  
portantea, berriz ere inportantzia gehie-  
na galtzen duela, ematen du. Gaur mugak  
beste nondibait pasatzen dira. Berdintsu  
gertatzen da marxismoarekin. ESB-an  
marxistarik bada eta ez-marxistarik ere  
bada. EHAS-en bada marxistarik eta ez-  
marxistarik, etc. Ezker aldeko Alderdi  
guztietan hala da, dirudienez. Eta sozia-  
lista/komunista berezkuntzak geroz eta  
zentzu gutiago bide du mendebalean.  
Euskal Herrian, behintzat, diferentzi hori  
gaindi liteke honez gero, nik uste, masa  
Erakunde zabal batetan.

Sozialismoa "ez-radikalaren" batasuna  
behar dugu, halaber: komunista izan,  
marxista izan, ala ez izan, masa Erakunde  
batetan bilduko direnena. Besteak beste,  
gaurko masa mugimenduari bere masa  
Erakundea dagokiola, esaten, halako masa  
Erakunde sozialista bat bururatzen dugu  
batez ere. Masa mugimendu honek aurki  
dezake bere espresioa eta erakundea Al-  
derdi kristau-demokrata batetan: PNV-  
ean, adibidez. Baina masa Erakunde sozia-  
lista batetan ere aurkitu behar du nahita-  
ez. Hori da euskal sozialismoak behar  
duena.

Ikus dezakezunez, bi perspektibatan  
opera daiteke. Bat da: ETA-k masa Al-  
derdi izan behar al du? EHAS-ek masa  
Alderdi izan behar al du?, etc. Alderdie-  
tatik hasiaz. Beste perspektiba masa mug-  
imendutik hasten da: masa mugimendu  
honi bere masa erakundea dagokio. Bere  
Alderdi Sozialista. Nola sortuko da masa  
Alderdi hori? Hori da problema;

Gauzak horrela ikusirik, nekez izan  
liteke oso optimista oraingoz. Izan ere,  
EHA-ek, ESB-ek, ETAk, zenbait Alder-  
di "sukursalisten" parte batzuek berak,  
eta abar, masa Alderdi hortan urtu behar-  
ko luketela, dirudi... Eta esango didazu,  
bihar goizerako gauza ote dirudien hor-  
rrek. Ez, ez dirudi Alderdiok hortarako-  
xe daudenik oraingoz. Eta halare, horrek,  
eta ez besteak, horrexek dirudi nahitaez-  
ko bidea, euskal sozialismoak inolako bi-  
derik izango badu. ●